



Literaturaz hazten

XABIER ETXANIZ ERLE 2022ko azaroaren 06a

XL. LIZARDI SARIA. 2021

Patxi Zubizarreta

Ilustratzailea: Antton Olariaga

ZERRIA



Zerria | Patxi Zubizarreta | Erein, 2022

Lizardi saria eskuratu zuen iaz Patxi Zubizarretaren lan honek; garai berria du gure arteko lehiaketarik zaharrenak eta aldaketako bat dugu bi urtean behin

gazteentzako obra bat sarituko dela eta hurrengoan haurrentzako. *Zerria* gazteei zuzenduriko lana dugu, irakurle kompetentea eskatzen duen liburua; errazkeriatik aldentzen den literaturazko lan landua.

Alpeetan kokatzen da istorio honen hasiera, glaziar batean agertu diren bi giza gorpu eta hartz baten hezurduarekin. Bereket neska glaziologo gazteak bi gorpuak ikustera doanean ikerketa baten zurrunbiloan ikusiko du bere burua: “Eta nik artean ezin jakin deskubrimenduak hasi baino ez zirela egin. Ezin jakin albisteak dagoeneko haginka egina zidala. Eta ez ninduela askatuko”.

Zubizarretak Alpeetatik Euskal Herrira eramango du Bereket, eta ondoren Pariseraino, izotzetan agertu diren bi pertsona haien tragedia argitzeko. Tragedia bat baita Gaxuxa eta Mixelena, tragedia haien haurra zerri batek hiltzea apaizaren laguntzaz, tragedia edo mendekua apaizaren heriotza... baina ez dut hemen esango nobela interesgarri eta aberats honen nondik norakoa, ez dut hemen aipatuko irakurleak misterioa argitzeko egin beharreko ibilbidea; bakarrik aipatuko dut narrazioak, Bereketen kontakizunak, aspaldiko garaiaz baino gaurko egunez ere gogoetarazten digula, liburuko komentarioak, konparazioak, anekdotak, historiak eta istorioak lagun ditugula kontakizunean zehar, hau aberastuz, hau hobeto ulertzen lagunduz, irakurlearen gozamina areagotuz. Eta asko dira horrelakoak nobelan zehar, inuitek nola harrapatzen dituzten otsoak, arranoaren eta erbinudearen arteko borroka, nola zeramaten izotza Ipar Ameriketatik Indiaraino, zerriek hildako umeen istorioak... eta pertsonaien gogoetak, Gaxuxa eta Mixel kontratatu zituen zuzendariaren, “Orduan pentsatu nuen bizitzen jarraitzea, batzuetan, hiltzea baino heroikoagoa izan daitekeela” bezalakoak.

Zerria ez da bakarrik obra gomendagarri bat, literaturaz gozatzeko, literaturaz hazten joateko, literatura zer den eta nola egiten den jakiteko adibide guztiz egokia baita.